

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak eta txekiar enpresa batek titanio-oxidoko nanopartikularen erabilera berriak ikertuko dituzte

Advanced Material JTJ enpresak 4,2 milioi euro inbertituko lituzke eta Nafarroan 100 lanpostu sortzeko aukera emango luke ikerketaren emaitzen arabera

Martes, 10 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak eta Txekiako Advanced Materials-JTJ enpresak titanio-oxidoko nanopartikularen industria-aplikazio berriak ikertzeko eta garatzeko lankidetzan arituko dira, osasunaren, ingurumenaren edo garraioaren sektoreetarako, besteak beste. Enpresak 4.250.000 euro inbertituko lituzke urtean

produktuaren 5.000.000 litro ekoizteko eta 100 lanpostu sortzeko, egiten diren proben emaitzak aldekoak izanez gero.

Lankidetzaren baldintza zehatzak finkatzeko, José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak hitzarmen bat sinatu du gaur goizean enpresaren ordezkariekin. Bileran, Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak ere parte hartu du.

Titanio-oxidoa, duen kolore zuri biziagatik, batez ere pigmentuen sektorean erabiltzen den konposatu kimikoa da. Munduko ekoizpenaren % 95 baino gehiago horretarako erabiltzen da. Beste alor batzuetan ere erabiltzen da, esate baterako, koloratzaile industrial gisa, kosmetikan, eta gainazaleko tratamenduetan katalizatzaile gisa, ehunen industrian eta uraren eta airearen arazketan.

Gaur egun, enpresa txekiarrek bi ikerketa-proiektu garatzen ari da Foru Komunitatean aipatu den nanopartikula duten produktuaren aplikazioan oinarrituta: bata NILSA sozietate publikoarekin, hondakin-urak arazteko, eta bestea Nafarroako Nekazaritza Industrien Teknologien eta Azpiegituren Institutuarekin (INTIA), mahastietako ohiko landare-osasunerako produktuak ordeztzeko. Bi kasuetan, emaitzak 2014. urtea amaitu aurretik emango dira ezagutzera.

Erabilera berriak eta aplikazio-eremua



Advanced Materials JTJ txekiar enpresarekin hitzarmena sinatzen

Gaur sinatu den lankidetzeta-protokoloaren arabera, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du, enpresarekin batera, titanio-oxidozko nanopartikulak beste alor batzuetan aplikatzeko aukerak ikertzeko, esate baterako, osasunaren alorrean (ospitaleetako gune publikoak), ingurumenean (hiriko airearen kalitatea hobetzeko) edo garraiobideen alorrean (ibilgailuak, taldeentzako bitartekoak).

Azken hamarkadan, nanoteknologian egin diren aurrerapenei esker, titanio-oxidozko basea duten produktu berriak garatu ahal izan dira, eta produktu horien eraginkortasuna nabarmen handitu da. Hala, aplikazioen kostua murriztu ahal izan da, eta merkatuetan lehia eragin dute, eguzki-energia elektrokimikoa aprobetxatzeko orduan katalizatzaile gisa dituen ezaugarriengatik, bereziki.

Titanio-dioxidoaren aplikazioa, Europako erdialdeko herrialdeetan hedatuta dagoena, fotokatalisi-prozesu baten bidez lortzen da. Horrek esan nahi du argia behar dela aplikatzeko, beraz, egunez egiten da, ez gauez, eguraldia eguzkitsua edo hodeitsua den kontuan izan gabe. Tratamendu hori beste batzuen ordeztatzeko arrazoia zera da: energia garbiaren aldeko apustua egiten duela eta argia bezain berriztagarria dela. Katalizatzaile gisa erabiltzen den beharrezko substantziari dagokionez, titanio-dioxidoaren oso kopuru txikia behar denez (4 miligramo hondakin-uren mila metro kubikoko), ingurumenean duen eragina ia hutsa da.

Advances Materials JTJ enpresa nanopartikulen ikerketan, garapenean eta berrikuntzan eta horien aplikazio partikoan aritzen da, eta, nazioarteko patente baten jabe denez, titanio-oxidozko nanopartikuletan oinarritutako FN1, FN2 eta FN3 produktuen jabe industrial da.

Ikerketak abian dira Nilsan eta INTIAN

Txekiar enpresak ikerketa-kontratu bana sinatu zituen iaz Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoekin, hau da, Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) eta Instituto de Tecnologías e Infraestructuras Agrarias, S.A. (INTIA) sozietateekin. Biak daude adskribatuta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura.

NILSAren kasuan, ikerketa-proiektua hondakin-uren arazketaok azken tratamenduari buruzkoa da nagusiki. Tuterako, Monteagudoko eta Arguedas-Valtierrako instalazioetan bost hilez probak egin ondoren, agentearen aplikazioa Alhama (Cintruénigo, Corella eta Fitero) eta Huecha (Cortes) ibaien arroetan dauden instalazioetara hedatuko da. Titanio dioxidoa erabiltzeak araztutako uraren mikrobiologia hobetzen du, Escherichia Coli eta Salmonella bakterioak bezalako patogenoak deuseztatzen dituelako, baita klorotik eratorritako substanziaz, gizaki eta animalientzako medikamentuen hondakinak (antibiotikoak batez ere), pestiziden eta plagiziden hondakinak eta zenbait disjuntore endokrino (hormonak) ere.

INTIArekin sinatutako proiektuari dagokionez, berriki hasi da eta titanio-oxidozko nanopartikulak dituzten produktuen aplikazioan dago oinarrituta, mahastietan erabili ohi diren produktu fitosanitarioak ordeztzeko. Heldu den urrian emaitza egiaztaturiko emaitzak izatea espero da. Era berean, produktuak animalien osasunaren alorrean aplikatzeko dauden aukerak ari dira aztertzen.